

**GATAZKEN ETA JAZARPENEN EGOERETAN JARDUTEKO POLITIKA**

## 1. Politikaren laburpena

Politika honen helburua da definitzea "Mondragon Assembly, S.Coop." kooperatibaren Aretxabaletako lantokian (Gipuzkoan)-aurrerantzean MA)- gertatu edo bertako langileengan eragina duten lan alorreko gatazkak eta jazarpen psikologikoak egoki tratatzeko sistematika.

## 2. Irismena

Politika hau MAko bazkide langile guztiei eta MAn kontratu batekin edo MAren izenean lanean ari den edozein pertsonari aplikatu beharrekoa da, eta lan harremanean oinarrituta garatzen diren banakako edota taldeko jardueri buruzkoa da.

## 3. Gatazkaren eta jazarpenaren azalpenak

Gatazka eta jazarpen egoerak azalpen hauen arabera daude definituta:

### Gatazka:

- Elkarren mendeko diren pertsonen arteko interakzioa, pertsona horiek aurkako interes, helburu edo balioak dituztela antzematen dutenean eta bata bestea oztopotzat ikusten duenean norberaren jomugara iristeko.
- Alde bietako batek lanean duintasunez tratatua izateko duen eskubidea murriztuta ikusten duenean eta egoera horren aurrean bere burua defendatzeko zailtasunak dituen.
- Ez dira gatazkatzat joko, berriz, noizean behin gertatzen diren edo lan harreman batean arrazoizkoak diren desadostasunen ondorioz sortzen diren egoera solteak.

### Jazarpena:

Jazarpen psikologikoak gehiegikeriazko portaera mota guztiak hartzen ditu modu jarraituan, errepikatuan eta denboran luzatua gertatzen badira, portaera horiek izanik jokabide, hitz, ekintza edo keinu edo idatzi errepikakorrek edo sistematikoak, zeinek pertsona baten nortasuna, duintasuna edo ongizate psikologikoa kaltetzen duten.

Hain jazarpen mota daude:

- **Jazarpen Diskriminatzailea.** Arraza edo etnia, ideologia, erlijioa, urritasuna, adina, sexu orientazioa edo beste edozein ezaugarri oinarri hartuta, langile bat edo gehiago diskriminatu, baztertu edo bakartzeko egiten den edozein portaera, ahozkoa, fisikoa zein antolaketakoa izan.
- **Jazarpen Psikologikoa.** Lan eremuan langile batek edo gehiagok beraiekiko botere posizioan (ez beti hierarkikoki) dagoen beste baten edo gehiagoren indarkeria psikologikoko portaerak pairatzea sarritan, behin eta berriz eta denbora luzean.
- **Jazarpen Sexuala.** Pertsona baten duintasunaren aurka egiteko asmoarekin edo asmoa izan ez baina haren duintasunari kalte egiten dion edozein portaera sexual, ahozkoa edo fisikoa izan, eta, bereziki, ingurune apalesgarria, larderiazkoa edo iraingarria sortzen bada.
- **Sexu arrazoiagatiko jazarpena.** Pertsona jakin baten sexuarekin zerikusia duen edozein jokabide, xede edo ondorio duena pertsonaren duintasunaren aurka egitea eta larderiazko ingurunea, apalesgarria eta laidogarria sortzea.

## 4. Gatazka edo jazarpen kasua izan daitekeena antzematen denean jarduteko modua

- Langile batek bere pertsonarengan edo MAko beste batengan gatazka edo jazarpen kasua izan daitekeena antzematen badu, "Jokabide, erantzukizun sozial eta complianceko Batzordea"-ri jakinarazi beharko dio.

**GATAZKEN ETA JAZARPENEN EGOERETAN JARDUTEKO POLITIKA**

Batzorde horretako edozein kideri jakinarazi ahal izango dio zuzenean edo posta elektronikoko helbide honen bitartez:

[gestionetica@mondragon-assembly.com](mailto:gestionetica@mondragon-assembly.com)

“Jokabide, erantzukizun sozial eta complianceko Batzordea”- jakinarazpena egiten duen pertsonaren konfidentzialtasuna bermatuko du.

- “Jokabide, erantzukizun sozial eta complianceko Batzordea”-k tratamendu protokoloa jarriko du abian, ZIGOR ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ESKULIBURUAren 5. atalean adierazitakoaren arabera.

## 5. Bermeak

- Kasuren bat baldin badago, erabateko konfidentziasunez tratatuko da. Horrelako informazio bakar bat ere ez zaio inori jakinaraziko edo aipatuko inplikaturiko pertsonen baimenik gabe.
- MAK bermatzen du politika honi atxikitzen zaizkion langileek, baita ere lekuko, aditu edo teknikari moduan dihardutenek ere, bermatuta izango dute euren intimitatea eta ez dute larderia, pertsekuzio, diskriminazio edo errepresaliarik nozituko.
- Pertsona batek gatazken ebazpenen alorreko kexa bat jakinarazten duenean, salatzaileak eta salatuak abian jarritako protokoloaren ebazpenari buruz informatuta egoteko eskubidea edukiko dute, bai eta ebazpen horren arrazoiei buruz informatuta egoteko ere, beti informazio batzuen konfidentzialtasuna babestuta, esaterako datu medikoena.
- Salatutako gertaerak egiaztatzea ezinezkoa bada, inola ere ez da errepresaliarik hartuko langile salatzailearen aurka, eta bereziki ikuskatuko da egoera, kexan planteatutako egoera ez dela gertatzen segurtatzeko.
- Neurriak hartuko dira hirugarrenen irudia kaltetu dezaketen iruzurrezko salaketen aurka, ZIGOR ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ESKULIBURUAren 5. Puntuan adierazten denaren arabera.